

1. MAILA

2. MAILA

3. MAILA

4. MAILA

4.3.1. Ikastetxearen ordezkari kanpora begira (Hezkuntza Administrazioa, beste ikastetxe batzuk, enpresak, erakundeak...) eta Hezkuntza Administrazioaren ordezkari ikastetxean, hari helarazteko hezkuntza-komunitatearen planteamendu, itxaropen eta beharrak, bai eta sortzen diren gorabehera nagusiak ere.

Zuzendaria Hezkuntza-administrazioaren ordezkari da, baina ez ditu hedatzen Hezkuntza-administrazioak sustatutako araudiak, proiektuak eta programak.

Administrazioak eskatutakoan soilik helarazten dizkio ikastetxearen beharrak eta proiektuak.

Zuzendaritza Administrazioaren ordezkari da hezkuntza-komunitatearen eta kanpoko erakunde ofizialen aurrean.

Araudia hedatzen du eta hezkuntza-administrazioetik sustatzen diren proiektu eta programen berri ematen du.

Dagokion eremuan, kudeaketa errazten die hezkuntza-administrazioaren erabiltzaileei.

Hezkuntza-administrazioaren organoei komunitateko behar eta proiektuen berri ematen die, bai eta ikastetxeari lotutako gorabehera garrantzitsuen berri ere.

Zuzendaritzak ikastetxean bultzatzen ditu hezkuntza-administrazioaren programak, eta ikastetxearen behar eta ezaugarriei erantzuteko egokitzen ditu.

Programa horiek ebaluatzen ditu, eta ebaluazioaren emaitzen arabera jokatzeko du.

Bere hezkuntza-komunitatearen beharren eta proiektuen alde egiten du hezkuntza-administrazioaren organoen aurrean, argudio sendoak baliatuta.

Gorabehera garrantzitsuenak Administrazioari helarazten dizkio, eta kudeaketa egokia bideratzeko prozedurak erabiltzen ditu arazoak konpontzeko.

Zuzendaritzak ikastetxean bultzatzen ditu Hezkuntza-administrazioaren eta beste instantzia batzuen programak. Haietan hobekuntzak sartzen ditu, ikasleei hezkuntza-erantzun hobea emateko eraginkorrak eta lagungarriak izan daitezen, eta eskola-arrakasta susta dezaten.

Hezkuntza-administrazioaren organoen aurrean eta beste administrazio publiko batzuen aurrean, bere hezkuntza-komunitatearen beharrak eta proiektuak defendatzen ditu; horretarako, ikastetxearen funtzionamenduari buruzko datu objektiboak eta eskola-emaitzak erabiltzen ditu argudio gisa.

Eraginkortasunez kudeatzen ditu haien lankidetzak eskatzeko beharrezkoak diren prozedurak.

Eskola-komunitateak ordezkari hartzen du zuzendaria, eta haren irizpidez fidatzen da, bai komunitatearen interesak defendatzeko, bai administrazioak sustatutako programak eta araudia lekualdatzeko eta kudeatzeko.